



DATUEN BABESA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN IKASTARORAKO DEIALDIA

Datak:

AUTOMATRIKULA: Argitaratu denetik **azaroaren 7ra (08:00ak)**.

Hurrengo estekaren bitartez egingo da: [online izen-ematea](#)

modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

IKASTAROA: Azaroaren 17tik (14:00ak) abenduaren 11ra (08:00ak), online

AZTERKETA: Abenduaren 13tik (14:00) abenduaren 20ra (08:00), online.

BAJEN JAKINARAZPENAK:

Matrikulatuta dauden eta ikastaroa egin ezin duten ikasleek horren berri eman behar dute **azaroaren 16a** baino lehen, matrikula ezeztatu ahal izateko. Ikastaroa data horren ondoren utziz gero, urtebeteko epean egiten den edozein prestakuntza-eskaera ezeztatu daiteke.

Iraupena: 20 ordu.

Hartzaileak:

Justiziako karrerako eta bitarteko funtzionarioak, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan aktiboan daudenak. 200 plaza.

Izen-emateak eskainitako plazak gainditzen baditu, 200 laguneko taldeak osatuko dira, abizenaren ordena alfabetikoari jarraituz, U letratik abiatuta.

Langilearen atarian, ikastaroa hasi baino 15 egun baliodun lehenago, hurrengo talderako ikastaroaren datak argitaratuko dira. Informazioa argitaratzen den egunean, partaideek lanean egon beharko dute administrazio honetan.

Ez da lan-politsetako langileentzako baliagarria.

Egitaraua:

- 1.gai: Oinarrizko kontzeptuak
- 2.gai: Datuen babesa Justiziako Administrazioan
- 3.gai: Datu pertsonalen erabileraren alderdi praktikoa.
- Ohiko galderak

Ziurtagiria:

Ikastaroa bukatuta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak "Nire karpetan" eskegiko du.